

TEORIAREKIN LOTURA

Ausubel, Novak eta Gowin

Ausubel-ek esaten zuen bezala, garrantzitsuena da haurrak jada barneratua dituen edukiak, hau da, aurrezagutzak. Hauek kontuan hartuta emango dira eduki berriak modu ez arbitrario batean, aurretik gaiaren kontzeptu antolatzaileak identifikatuz eta ikasketa esanguratsua errazten duen metodologia erabiliz. Metodologia hau aurrera eramateko gaiarekin esanguratsua den materiala erabiliko da, eta ikastearen aldeko jarrera positiboa sustatuko da. Horrela, informazioaren barnerapena iraunkorra izango da eta ikaskuntza aktiboa eta pertsonala bultzatuko da.

Hala ere, ez dugu alde batera utziko Novak-ek proposatu zuen teoria, ikuspegi humanista batean oinarritzen dena humanismo zientifikoa defendatuz. Ausubelen ideia berdinetatik abiatuz, gizarteratzerako baliagarriak diren ideiak proposatzen ditu, sentimenduak, pentsamenduak eta ekintzak bateratuz. Honek asmatutako mapa kontzeptualen bidez lan egingo dugu, informazioa aurkezteko diagrama, alegia, ikaskuntza modu bisualago eta ulergarriago batean eman dadin. Bertan, kontzeptu klabeak identifikatu ondoren, hauek orokorrenetik zehatzenera ordenatuko dira hierarkikoki lotura-hitzak erabiliz eta lotura gauzatuak gehituz. Honela, haurren ikusmen-hautemate eremua zabalduko da eta galdera ezberdinak argitzen eta lotzen lagunduko die, behaketa eta ulermena erraztuz. Gainera, hausnarketarako eta sormenerako tartea emango zaie.

Bestalde, Gowin-ek asmatutako UVE diagrama erabiliko da lanaren sintesia egiteko. Modu honetan, ezagutzaren ekoizpen egitura ulertzen lagunduko digu, baita hain garrantzitsuak diren bide metodologikoak eraikitzen.

Gure kasuan hiru autore hauen teorien nahasketa egin dugu. Alde batetik erabat biologikoak diren edukiak landuko ditugu (animaliak, ezaugarri fisikoak...), baina era berean, alderdi humanistikoagoak eta enpatiazkoak landuko dira (desagertzeko arriskuan dauden animalien berri ematea eta hauek errespetatzen eta laguntzen bultzatzea).

Aurre-ezagutzak

Haurren aurre-ezagutzak haien eraikuntza pertsonalak dira, ideia espontaneoak eta bakoitzarentzak koherenteak izan arren, gerta daiteke beste batentzat ez izatea. Askotan zientifikoki okerrak izatea gertatzen da, izan ditzakegun beste ezagutzekin konexiorik ez dutelako. Ezagutza mota hau preinstrukzionala da, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren aurretik egiten ditugun eraikuntza propioak baitira aurretik esan bezala.

Aurre-ezagutza hauek edozeinekin partekatzen dira, haren adina, jatorria edo formazio-maila zein den kontuan izan barik. Behaketa hutsean zentratzen dira, beraz esan daiteke jatorri pertzeptiboa dutela. Gainera, pentsamendu zehatzetan zentratzen dira, hau da, preoperazionalak dira. Hortaz gain, kontzeptu berri horien definizioa termino absolutuetan oinarritzen da eta ez berriz aldeztatik definitu izan diren kontzeptuen erlazioan. Hori gutxi balitz, aurre-ezagutzak haurraren hizkuntz eta kultur-ingurunean jatorria izan dezakete.

Baldintzapen faktoreak

Guk proposaturiko jarduera hauetan, haurrek aurretik dituzten ezagutzak oztupoak izango dira maiz. Hasteko, haurrek bizitako esperientziak eta bizipenak kontuan hartu beharko dira, haurrek enpirikoki ikasten baitute eta oso zaila da aurrezagutza hauek aldatzea. Haurrak soilik behatuko ditu jada ezagutzen dituen ezaugarriak, horregatik, giza eta kultur elkarrekintzen bidez, arrazonamendu edo ikuspuntu ezberdinak alderatzeko

beharko du. Bertan, komunikazioak garrantzia handia hartuko du, bitartekari moduan jokatu du eta. Hala ere, kontuan hartzekoa da ere neurologo batzuen ustez oinarri genetiko bat dagoela pentsatzeko eran.

Gainera, aldagai afektiboak kontuan hartuko ditugu, hala nola sentimenduak, auto-estima, balio pertsonalak... haurren ikaskuntzaren arrakastaren arduradunak baitira hein handi batean.

Eredu eraikitzailea

Ikaskuntza eredu eraikitzailea 80. hamarkadan eman zen eta gaur egun prozesu gisa hartzen da. Irakastea ikaskuntza prozesuan bitartekaritza lana egitea da, hau da, planifikazioa, jarduera esanguratsuen antolaketa... da. Ikaskuntza eredu honek ikasleen ideiak abiapuntutzat hartzen du.

Ikaskuntza eredu honek dioenez, ikasleak jarduera manipulatioan ez ezik, kognitiboetan ere inplikatu dira. Autoerregulazioa ematen da, hau da, ideien esplorazio fasea, ezagutzen berrantolaketa eta testuinguru ezberdinetan ideiak sartzen dira.

Gainera irakasleak izan beharreko rola gelako ikertzailea izatea da, ikaskuntza prozesuan gerta daitezkeen arazoak detektatu beharko ditu eta hauei konponbidea nola eman behar duen ikusi beharko du, taldearen beharrei erreparatuz jarduerak moldatzen dituelarik. Irakasleak jarduerak antolatu eta sekuentziatzen ditu ikasleek ideietatik abiatuz eta eta ikaskuntza-zikloa jarraituz eta ikertzaile praktikoa, haurrak eta kritikoa izanen da.

Hortaz gain, elkarrekintza ugari ematen dira bai ikasleen artean eta baita ikasle-irakaslearen artean. Horrela, Vigotsky-ren ikaskuntzaren giza-izaerari buruzko teoria berreskuratzen da.

Bukatzeko, eredu hau jarraituz, irakaskuntza-ikaskuntza kooperatiboa da, ikasleek haien artean laguntzen lan egiten dute eta gainera baliabide ugari erabiltzen dira. Hori gutxi balitz, gelan lanean aritzeko giroa autoerregulazioan oinarritzen den guztion arteko elkarrizketa da.